

Arditurriko mina eremuaren antolaketa proposamena: ingurumen zentro baten sorkuntza projektua

(Proposal for land planning in the area of Arditurri mine: the project of creation of an environmental centre)

Mendizabal Idiazabal, Mikel

Lapitze, 28. 20303 Irún

lapitze28@euskalnet.net

Jaso: 01.10.29

Onartu: 04.06.18

BIBLID [1137-442X (2004), 12; 207-245]

Arditurriko mehatze gune historikoa 1986an, behin-betiko itxi zenean, berreskuratzeko prozesuan abiatu zen. Arditurri Aiako Harriko Parke Naturalaren baitan dago eta Parkeko kudeaketaren oinarritzko dokumentutan errestaurazio gune modura izendatu da. Lan honek, berreskuratzeko prozesu horretan ekarpena egin nahi du, Arditurriko eskuadlerako erreferentziazko ingurumen zentroa sortzeko projektua aurkezten delarik. Honekin batera proiektuaren lehen atala den ingurumen jardueren bilduma argitaratzen da.

Giltza-Hitzak: Arditurri. Aiako Harriko Parke Naturala. Oiartzun. Lurralde antolaketa. Errestaurazio proiektua.

Cuando el enclave histórico de las minas de Arditurri cesó definitivamente su actividad en 1986, dio comienzo el proceso de recuperación. Arditurri se encuentra en el Parque Natural de Peñas de Aya y en los documentos fundamentales de gestión del Parque figura como lugar de restauración. El presente trabajo pretende ser una aportación en este proceso de recuperación, presentando un proyecto de creación en Arditurri de un centro de medio ambiente de referencia para la zona. Junto con ello se publica la colección de las actividades medioambientales que forman la primera parte del proyecto.

Palabras Clave: Arditurri. Parque Natural de Peñas de Aya. Oiartzun. Ordenación del Territorio. Proyecto de restauración.

Lorsque l'enclave historique des mines d'Arditurri a définitivement cessé son activité en 1986, le processus de récupération a commencé. Arditurri se trouve dans le Parc Naturel de Peñas de Aya et figure, dans les documents fondamentaux de gestion du Parc, comme un lieu de restauration. Ce travail essaie de contribuer à ce processus de récupération en présentant un projet de création d'un centre d'environnement de référence pour la zone d'Arditurri. On publie, en même temps, la collection des activités environnementales qui forment la première partie du projet.

Mots Clés: Arditurri. Parc Naturel de Peñas de Aya. Oiartzun. Aménagement du Territoire. Projet de restauration.

1. SARRERA

Jarraian aurkezten dena, Eusko Ikaskuntzak antolaturiko Lurralte Antolaketa eta Kudeaketa Ikastaroaren 2000-01 edizioan kurso amaierako lan modura aurkeztu zen lanaren bertsio laburtua da.

Bere helburua Gipuzkoako Oiartzun bailaran eta Aiako Harriko Natur Parkean kokaturik dagoen Arditurri deituriko eremuaren antolaketa proposamen bat egitea da.

Arditurrik ingurumenarekin erlazionatutako jarduerak garatzeko potentzial handia erakusten du. Aukera horiek ezagunak izanik, bertan eragiten duten administrazioak zein Natur Parkeko kudeatzaleak, Arditurri berreskuratzeko prozesuan sarturik daude.

Lan honek elkarren artean osagarriak diren bi zati desberdin ditu. Lehenengoa, *Arditurrin Ingurumen Zentroa Sortzeko Proiektua*, Ingurumen Zentro bat sortzeko proiektu baten aurkezpena da. Bigarrena, *Ingurumen Jardueren Bilduma*, proiektua gauzatzeko eman beharreko haserako pausuetaiko bat da: Arditurri eta bere inguruko eskualdean, egin diren ingurumen jarduera desberdinen bilketa da.

2. ARDITURRIN INGURUMEN ZENTROA SORTZEKO PROIEKTUA


2.1. Testuingurua

2.1.1. KOKAPENA

Arditurriko Meategi-Eremua, Gipuzkoako IparEkialdean, Oiartzungo bailara ren iturburutan aurkitzen da, Aiako Harria mendiaren Mendebareko oinean. Eremua 100 eta 300 metroko altitudeen artean kokatzen da eta bi gune nagusi bereizten dira Arditurri eta Otsamantegi izeneko erreken arroei dagozkienak. Orotara 65 ha-kо hedadura duen eremuaren baitan bi gune populatu aurkitzen dira, batetik Otsamantegi baseria (Otsamantegi bailaran) eta bestetik Meatzaritza garaiko eraikinetan bizi diren pertsonak. Oiartzundik Aritzulegira dioan G-159 errepidearen 7. km ingurutik abiatzen den errepide-adar bat Otsamantegi eta Arditurriko gunetaraino iristen da. Eremua mendi bide eta pista ugarik zeharkatzen dute, beraien bidez, Aritzulegi eta Elurretxe mendateetara joan daitekeelarik. Aipamen berezia behar du Arditurriko trenaren ibilbidea. Arditurriko bailara zeharkatzen du (lau tunel tarteko) eta gero Oiartzungo bailaran barrena jarraitzen du (ikus 1. irudia).

Aztertzen ari garen eremua eskala handiago batean, eskualde neurrian, aztertu ezkerro bere kokapenaren ezaugarri garrantziko batzuk atzemango ditugu. Alde batetik Arditurri, Aiako Harriko Parke Naturalarenaren barruan kokatua aurkitzen da. Aiako Harriko Parke Naturala, Euskal Autonomi Elkarteko Babes-gune-sareko partaide da, bere helburu nagusien artean, naturaren kontserbazioa eta lurrardearen gozamen kolektiboa lortzea direlarik (Natur Baliabideen

**1. Irudia: Gipuzkoa IE eskualdeko mapa (Euskal Herria 1: 280.000,
Sua Edizioak, Mapatik moldatua), eta Arditurri inguruetako mapa
(IKERMAP, 1999)**



Antolaketa Plana/NBAP; Eusko Jaurlaritza, 1995). Babesgune orok duten erronka, kontserbazioa eta giza jardueren uztarketa da eta horretan berebiziko garrantzia dute babesguneen muga eta sarrerak. Arditurri Parke Naturalera heltzeko sarbide nagusietako bat izanik, gizakia eta Parkea harremanetan jartzeko eremu egokia izan daiteke.

Eskualde honen kasuan hurbilean duen biztanleria kopuru altua kontutan izanda (Errenerria, Irun edota Donostia hiriak, hurrenez hurren, 9, 11 eta 16 km-tara aurkitzen dira) eta egun publikora irekiak diren parkearen sarrera gune tradizionalek (Liztorreta, Ingelesaren Gaztelua...) jasaten duten presio bortitza iku-sita, Parke Naturalak dituen babes eta aisaldi helburuak lortzeko Arditurrik moduko eremuaren antolaketak aukerak zabala eskaintzen ditu.

2.1.2. EGUNGO EGOERA

Arditurrik duen kokapena eta historian zehar jasandako eraldaketaren ondorioz bertako egungo paisaiaren ezaugarri nagusiak, izaera menditarra eta ingurumen degradazioa dira. Menditarra, Aiako Harrien oinean egonda, paisaian des-nibel handiak eta orma arrokatsuak, errekasto eta ur-jauzi ederrak beha daitez-keelako. Era berean eremu menditar natural batean kokatua egotean fauna eta flora aberatsak jasotzen ditu hobekien kontserbaturiko aldeetan. Halere, egungo paisaian adierazgarrienak diren ezaugarriak meatzaritza-industriaren hondakinak dira. Meatzearen erauzketa 1986an amaitu zen (Torres & Vieira, 1998), eta bere eraginaren islada dira Arditurrin aurki daitzeken meak eta arroka hondaki-

2. Irudia: Arditurri meatzaritza guneko argazkia



nez osaturiko mendixkak, eraldaturiko sistema hidrologikoa, Mina-zulo desberdinak, kanterak, mina-industriaren garaiko eraikinak e.a. Hondakin hauen ondorioz erreken kutsadura kimikoa eta mendixken ezegonkortasunak sorturiko harriskuak aipa daitezke Arditurriin.

Honetaz gain, eremuko zenbait aldetan basogintza lanak bereiz ditzakegu batik bat *Pinus radiata* espezie exotikoaz egindakoak eta baita bertako zuhaitzez egindako zenbait landaketa berri ere.

2.1.3. PAISAIAREN EBOLUZIOA

Ikusi dugunez meatzaritza izan da Arditurriren historian eta paisaiaren eboluzioan gehien eragin duen giza-faktorea. Arditurriko Mina eremuan oraindik erro-matarren garaikoak diren 10 mina-zulo mantentzen dira (Urteaga, 1996) eta berrian aurkituriko lanabesek (Leibar, 1998), erromatarrek egindako lanari buruzko aztarnak erakusten dizkigute. Thalacker jaunak 1804.ean erromatarren garaiko 46 galeria eta 82 putzu deskribatu zituen (M. de Lekuona, 1956), Gascuek 1908.ean egindako kalkuluen arabera, 200 urtez jarraian 400 langile aritu omen ziren Arditurriin (Torres & Viera, 1998). Erromatarren garaian batik bat zilar-dun galena izan zen ustiatua, gerora burdina, blenda eta fluorra izan ziren ustiatuiko mea nagusiak (Urteaga & Ugalde, 1986). Erromatarren garaiaren ondotik burdinak izan zuen garrantziaren lekuko dira, bailaran aurkitu daitezken burdinolen-industria oparoaren aztarnak. *Oiartzungo Natura liburuan* (Aseginolaza, 2000) jasotzen denez: 1508. urtean *Oiartzungo 9 otek 1.000 kintal burdin ekoizten zutenek, 12.000 karga egur behar zitzuten urtero*. Burdin hori ekoizteko minerala Bizkaiatik importatzen zen hein handi batean, baina zati bat Arditurriko meatzetatik ustiatzen zen (M de Lekuona, 1956). Era berean pentsatzeko da Arditurri inguruko basoak ere ustiatuak izango zirela burdinoletan labeak horriztzen. Arditurriko mugetatik hurbil Olaberriako Burdinola aurkitzen da. 1511. urtean eraiki zen eta hau izan zen Oiartzunen azkena itxi zen burdinola, oraindik bere zenbait hondakin nabariak direlarik (Arbelaitz, 1980).

Meatzaritzak aro modernoa ezagutu zuen ondoren, Minak modu industrialean eta sozietateen bitartez ustiatzen hasi zirenean. XVIII. mende hasieran izandako lehen saiakeren ondoren, 1880.ean *La Asturiana* izeneko sozietateak hartu zuen Arditurriko meak ustiatzeko ekimena. 1913-1924. urteen artean *Compagnie Minière d'Oyarzun* elkartearren esku egon ondoren, *La Asturianak* berriro hartu zuen ustiatetaren ardura.

1966ean, 1902an eraikitako trenak bere azken bidaia egin zuen, eta azkenik 70.eko hamarkadan, egungo paisaiaren erantzule nagusietakoa izan zen ekintza gertatu zen, 1986. urtean, minak itxi arte egin zen zeru-zabaleko ustia (Torres & Vieira, 1998).

2.1.4. ARDITURRIKO BERRESKURATZEA

Mina erauzteari utzi zitzaisonetik eremuak garapen desberdinak jasan zituen. Alde batetik tokian gelditu ziren material eta eraikinen harrapaketa eta suntsi-

pena eman zen. Bestetik, herritarrek ekintza desberdinatarako erabiliaz hasi zuten espazioaren berreskurapena, bizioki ere bihurtu zelarik. Erakunde publikoek ere espazio horren berreskuratzea abian jarri zuten, horretarakok ikerketa eta proiektu desberdinak garatu zirelarik. Ekimen horien artean lehenetakoa 1984. urtean eman zen, Eusko Jaurlaritzak Arditurriko meatzeak *Kondaira-Artezkoko Gune* modura aldarrikatu zituenean (Eusko Jaurlaritz, 1984). Oiartzungo Udala izan da bide beretsuan berebiziko interesez aritu dena, bere eskuistik. 1996an Haginipe-Sestra enpresa taldeari gunea berreskurateze proiektu bat eskuatu zitzzion eta Arditurriko lurren jabego lortu zen 1998. urtean. Gune honek duen interesaren lekuko dira era berean Parke Naturaleko Antolaketa eta Kudeaketa agiriak: honela, Parkearen kudeaketarako oinarrizkoa den agirian (Natur Baliabideen Antolaketa Plana/NBAP) Arditurriko eremua Errestaurazio gune modura jasoa ageri da (Eusko Jaurlaritz, 1995), bestalde Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Plan Eraentzailean/EKPE (Eusko Jaurlaritz, 2002) Heziketa, Interpretazioa eta Ikerketa alorrean beharrezko diren jarduketen artean lehena Arditurriko Parketxearen eraketa, Parke Naturalaren Harrera gune eta zabalkuntzarako, da (9.7.3.1. atala).

Arditurren antolaketa prozesuak ez du etenik, Udalaren ekimenez, Trenbi-dearen berreskuratzea eman da, aurretik Ugaldetxo-Askosti zatia berreskuratu bazeen, 2001. urtean Askositik, Arditurriko sarrerarainokoa berreskuratu eta zabaldu zen. Honela bidegorriari, bere jatorriraino iristeko, Arditurriko bailaran duen zatiaren berreskuratzea besterik ez zaio falta eta hori Udalaren aurreikusitako ekimenetariko bat da. Bestalde eta Eusko Jaurlaritzaren IZARTU programaren barnean, beharrezkoak diren ikerketak egin ondoren, Arditurriko dituen gune arriskutsuak, eskonbrerak eta ur-kutsadura konpontzeko lanak laster batean hasiko dira. Azkenik Aiako Harriko Parke Naturaleko Parketxearen Eraikina Otsamantegi baliaran eraikitzeko lehen urratsak (proiektua) ere aurrera doaz.

2.2. Proiektuaren Irizpideak eta Helburuak

Proiektuak, Arditurrik egun bizi duen egoera honetatik abiatuta, eremuaren antolaketa saiakera bat egiten du.

2.2.1. IRIZPIDEAK

Proposamena jarraian aipatzen ditugun irizpide nagusi hauetan oinarritu nahi izan da:

- Arditurriko zonaldean jadanik abian diren beste proiektu eta interbentzio-
kiko osagarritasuna
- Eremuak dituen berezko baliabideak bultzatzea
- Eremuak dituen arazoak modu kreatiboan bideratzea
- Arditurri hurbiletik bizi dutenek proiektuan parte-hartzeko aukera bermatzea.

2.2.2. HELBURU OROKORRAK

- Arditurri, eskualdeko ingurumen jardueren gune bilakatzea.

- Eremua eta bertan kokatuko diren zerbitzuak, eskualdeko populazioaren ingurumenarekiko beharrezkoa den kultura aldaketaren bultzatzalee bilakatzea.

2.2.3. HELBURU ZEHATZAK

- Arditurriin eskualde mailako Ingurumen Zentroa sortzeko proposamena egitea.

2.3. Esperotako Emaitzak

Proiektu honen gauzatzeak ondorengo bi txostenak izango lituzke emaitzatzat:

- Ingurumen Zentroaren sorkuntzarako proposamen **txostenena**. Txosten honen baitan, besteak beste ondorengo puntuak jasoko lirateke:
 - Zentroaren azpiegitura zerrenda eta hauen ekoeraikuntza proiektuaren zirriborroa.
 - Zentroak eskainiko lituzkeen zerbitzuen zerrenda eta zerbitzu hauen filosofia
 - Arditurrik eta bere inguruneak ikerketarako dituen aukeren bilduma zehatza.
 - Arditurrik eta bere inguruneak ingurumen heziketarako dituen aukeren bilduma zehatza.
 - Eremuak bestelako Ingurumen zerbitzuetarako dituen aukeren bilduma.
 - Arditurriko paisaiaren eboluzioaren azterketa, naturaren giza-erabilpena (meatzaritza).
 - Inguruko beste zerbitzu eta proiekturekiko uztarketa proposamena.
 - Bideragarritasun azterketa.
- **Laburpen-txotena**: Modu laburtuan, lanaren emaitzak nagusiak bilduko ditu.

2.4. Lan-Egitasmoa

2.4.1. PLANIFIKAZIOA/KOORDINAZIOA

Egileak elkarlanean lan egingo du proiektuaren tutorea izango den Carlos Aseginolaza, Oiartzungo Udaleko Ingurugiro Teknikariarekin. Aldi berean proiektuaren garapenean, eremu horren antolaketa eta kudeaketan eragina duten pertsona eta erakundeen parte-hartza aurreikusten da (Parkeko Patronatua, Ingurumenarekin erlazionaturiko sektore desberdinak, e.a.). Aholkulari talde honek proiektuaren fase guztien berri izango du eta baita bere iritzi eta ekarpenak egiteko aukera ere. Lanaren planifikazioan eta azken ebaluaketan beraien parte-hartzeak garrantzi handia izango du.

2.4.2. GARAPEN FASEAK

Datu Bilketa

Datu bilketa hau lehen hiru hilabetetan zehar luzatuko da. Jaso beharreko informazioa anitza denez, datu bilketa modu desberdinak aurreikusten dira, hala

nola, bisitak, elkarrizketak, inkestak, bibliografia analisiak, internet bilaketak e.a. gai espezifiko desberdinei buruz arituko delarik, informazio bilketa ere alor desberdinatzen zentratuko da:

I. Informazio orokorra

Antzeko ekintzak garatu direneko lekuetara bisitak eta toki hauetako ardura-dunekin harremana. Adibidez, Eskualde desberdinatko Parketxe eta Naturaren Interpretazio Zentroetara bisita (EAE, Nafarroa, Frantzia, Catalunya...), Ingurumen Heziketan espezializaturiko guneetara (Pagoeta, Santiagomendi...), Mina museotara (Museo Minero de Asturias...), Ikerketa Zentrotara (Centro de Estudios Pirenaicos,...), La Arboledako mina museoa eta mina-eremu berreskuratura, inguru-menean espezializaturiko datu-base eta liburutegiak.

II. Eremuak Ikerketarako duen potentziala neuritzeko datu bilketa

Ikerketa alor desberdinek Arditurri eta inguruko eremuan (Oarsoaldea, Parke Naturala) ikerketak garatzeko duten aukerak aztertzeko bi bilketa egingo dira: alde batetik sail bakoitzean eremu honi buruz egindako ikerketen bilduma, eta bestetik alor bakoitzeko adituekin, elkarrizketa eta inesta bidez, eremuak ikerketa berriak burutzeko dituen aukera eta beharrak identifikatuko dira. Sarreran esan den modura, ikerketa bide berritzaleei arreta berezia eskainiko zaie. Bilketa hauek egiteko, erakunde eta adituen zerrenda osatu beharko da proiektuaren egile eta laguntzaileen artean, zerrenda horren barruan besteak beste, EHU, NUP, UEU, ARANZADI, EUSKO IKASKUNTA, ELHUYAR, NEIKER, ARKEOLAN...sartuko direlarik.

III. Eremuak Ingurumen Heziketarako duen potenzialitatea neuritzeko datu-bilketa

Aurreko puntuaren bidetik, alde batetik gure lan eremuan egin diren esperimentzien bilketa egingo da, eta bestetik ingurumen-heziketa alorrean diharduten eragile desberdinekin kontaktatuz eremuak zerbitzu hauek garatzeko dituen aukera eta beharren bilduma egingo litzateke. Kontaktu zerrenda honetan, hezkuntza sistema formalean aritzen direnak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilerra, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea..., eta Hezkuntza ez formalean aritzen direnak: Ingurumen Heziketa taldeak, Ikastaro antolatzaileak, e.a. egongo dira

IV. Bestelako Ingurumen Zerbitzuak Eskaintzeko potenzialitatea neuritzeko datu-bilketa

Aurreko kasuetan bezala, orain artean egindakoaren sistematizazioa egingo litzateke aurrena, eta ondoren alor hauetan diharduten talde eta pertsonenkin bilduko ginateke (Natur aste antolatzaileak, ekologistak, ehiztariak, nekazal sindikatuak, mendi taldeak...).

V. Eremuaren inguruko beste azpiegitura eta ekintzei buruzko datu-bilketa

Inguruan abian edo aurreikuspenetan diren ekintza desberdinei buruzko informazio bilketa egingo da beraien arduradunekin harremanetan jarriaz, adibidez (aterpea, parketxea, Izartu berreskuratze plana ...).

Datu Analisia

Bildutako datu eta proposamen guztien analisia egingo da.

Zirriborroa eta Zuzenketak

Aurreko puntuaren egindako analisiaren ondoren zentroaren sorkuntzarako lehen proposamena egingo da, berau tutoreak, laguntzaile taldeak, eta proiektuarekin inplikatu direnei helaraziko zaie, eta hauek beraren gainean bidezko ikusten dituzten zuzenketak egingo dituzte.

Azken Txostena

Zirriborroari egin beharreko zuzenketak egin ondoren zentroaren sorkuntza azken txostena egingo da.

2.4.3. EBALUAKETA

Proiektuan modu zuzenean parte hartu dutenen artean proiektuaren fase desberdinaren ebaluaketa egingo da eta proiektuaren amaieran azken ebaluaketa egingo da, proiektuan jasotzen ziren helburuen lorpen maila neuritzeko eta aurkezten den proposamenak izan dezakeen bideragarritasuna edota jarraipena aztertzeko.

2.5. Proiektuaren Ildo Nagusiak

2.5.1. ZENTROAREN ERAIKUNTA

Sarreran agertu bezala, eraikuntza-proposamena gure eskualdean garatzen hasiberria den ekoeraikuntza irizpideen inguruan egingo da, hau da, eraikuntzaren fase guztietan irizpide ekologikoak izango dira kontutan hartuko direnak, bioklimatizazioa, energia berritzagarien erabilpena, efizientzia energetikoa, hondakinaren birziklatzea, paisaiaren integrazioa, e.a.

Proiektuan egingo den azterketaren ondorioz, eskualdeak dituen ingurumen alorreko beharrak eta Arditurrik eskaini ditzakeen zerbitzuak zehatztuko dira, analisi hauen ondorioz zentroak behar dituen azpiegiturak zehatztuko dira. Ondoren, administrazio desberdinek dituzten aurreikuspenen arabera azpiegiturak kokatuko direneko gunea zehatztuko da eta azkenik gune horren antolaketa eta bertan jasoko diren azpiegiturak eraikitzeko proposamena egingo da.

Proiektuaren garapenean zehatztuko badira ere, zentroak oinarrizko azpiegitura hauek izan beharko lituzke: aretoak, liburutegiak, telematika sareak, errepidea, aparkalekuak e.a.

2.5.2. ZERBITZUAK

Proiektuak zerbitzu desberdinak aztertuko ditu eta beraiek modu koordinatuan sortzeko eta kudeatzeko proposamena egingo du. Zentroak eskainiko dituen zerbitzuak, proiektuan zehatztuko badira ere, jarraian zentroak eskaini ditzakeen zerbitzu desberdinei buruzko aurrerapen bat egingo dugu.

Parketxea/Harrera etxea

Zerbitzu hau, babesguneetan ohikoa da, bertan berau bisitatzena datozen pertsona, familia eta taldeei harrera egin eta parkeari buruzko informazioa eskaintzen zaie. Zenbait kasutan erakusketa bat izaten dute (naturaren interpretazio zentroa), Parkearen ezaugarri nagusiak bertan jasotzen dira. Denda bat ere eduki ohi dute, bisitariek orioigarriak erosi ahal izateko. Besteak beste, bertako produktuak eta artisautza bultzatzeko erabili daiteke.

Ikerketa

Ikerketa zerbitzuaren funtsa, Arditurriko eremuan, eta inguruko eskualdean (Parkea, Oarsoaldea, Donostia-Baiona Eurogunea,...), ikerketaren bat bultzatu nahi duen pertsona edo taldeari, gutxieneko azpiegitura bat eskaintzea da. Ikerketa-gunean bertan landako-lana egiteaz gain, ikerketak dituen bestelako faseak ere garatzeko aukera eskainiko delarik. Horretarako, ikertzaileek zentroan oinarritzko laborategiak, liburutegi espezializatua eta teknologia berriak (internet, GIS e.a.) eskura izango dituzte.

Aipatu behar da, *Parkean gertatzen diren prozesu naturalen dinamika eta eboluzioaren ezagutza*, Parkearen Baliabide Naturalen Antolaketa Planaren Dokumentuan (NBAP.19.art.) agertzen den helburuetariko bat dela (Eusko Jaurlaritza, 1995). Era berean Erabilera eta Kudeaketa Plan Eraantzailen EKPEKO 9.7.1.6. puntuaren jasotzen denez Bereziki ildo nagusi hauen inguruko ikerketa jarduerak sustatuko dira (Eusko Jaurlaritza, 2002):

- Natur eta kultur baliabideen oinarrizko inventarioak
- Parke Naturalean garatzen diren prozesu naturalen ezaguera
- Parke Naturalaren kudeaketak sortutako prozesuen ezaguera, batez ere bere erabilera publikoak sortutakoena
- Esplorazio arkeologiko eta espeleologikoak
- Kultur eta industri ondarea babestu eta sustatzeko neurriak
- Parke Naturalean dauden inpaktuak lehengoratzera aplikatutako ikerketak
- Ingurugiro Heziketa

Proiektu honek proposatzen duen moduko zerbitzu batek helburu horiek lortzen lagundu dezake.

EKPE-an aipaturiko ildo nagusien barne, eskualdean landu daitezkeen ikerketa alorrik oso zabalak dira (horixe aztertuko du proiektu honek). Horren adibide zerrenda posible bat aurkezten dugu:

Zientzia eta Aztergai Ambiental-Teknikoak

- Metereologia (NBAPen jasoa 19. art)
- Erosioa
- Hidrologia
- Kutsadura Kimikoa
- Fitoerremediazioa
- Ehiza/Arrantza Kudeaketa

Basogintza (NBAP. 15.art)
Fauna/Flora
Eremu Babestuen Kudeaketa
Giza Ekologia
Mendi Nekazaritza
Ekoeraikuntza
Energi Berriztagarriak
SIG/teledetekzioa
Paisaiaren eboluzioa
Geologia
Baliabide naturalen erabilera
...
Zientzia Sozialak:
Etnografia
Arkeología Industriala (NBAP. 27.art)
Antropología
Historia (NBAP. 19. art)

Ingurumen Heziketa

Ingurumen Heziketa-zerbitzuak, ikerketarako planteatzen den zerbitzuak duen funts bera du, hau da, ingurumen heziketa ekintzaren bat eskualdean garatu nahi duen edozein pertsona edo talderi gutxieneko azpiegitura bat eskaintza. Printzipioz, Ingurumen Hezkuntzarako eskaintza ahal bezain zabalena izatea aurreikusten da, hezkuntza formal eta ez formaleko maila desberdinei bideratua. Mendian egiten diren ekintzak, “mendian bertan” osatu ahal izango dira, zentroko eraikin eta zerbitzuez baliatuaz.

Ingurumen heziketarako, Arditurriko inguruak aukera anitzak ditu (Parke Naturala, Mina-eremua e.a.), baina zentroa bera ere ingurumen heziketarako aztergai izatea espero da, bere eraikinak eta funtzionamendua ekoeraikuntza mailan eredugarri izango baita.

Liburutegia

Liburutegi zerbitzua, zentroak eskainiko dituen beste zerbitzuen osagarria izango da, Ikerketa edota ingurumen heziketa-jarduerak lantzen ari direnek erabili ahal izango baitute. Aldi berean, ingurumeneko alorretan espezializaturiko liburutegia izanik, gai horietako konsultak egiteko erabilgarria izango zaio jende askori.

Liburutegiak bi modutan funtzionatuko luke, bata klasikoa eta bestea birtua- la. Liburutegi klasikoan oinarritzko bibliografia jasotzeaz gain, eskualdean alor desberdinaren egindako ikerketen bilduma jasoko da (NBAP. 19.art). Zati birtua- lean, Teknologia berrien bitartez (Internet, GIS, Teledetekzioa, Zuntz optikoa e.a.) sare zibernetikoan lan egin ahal izango dute erabiltzaileek, horrek ematen dituen aukerez baliatu ahalko direlarik, (beste datu-baseak aztertu, konsultak egin, adi- tuekin komunikatu e.a). Alderantzizko aukera ere izango da, liburutegia eta zen- troko zerbitzuak erabilgarri izango dira sarean, eta edozeinek erabili izango ditu “birtualki”.

Bestelako zerbitzuak

Ingurumenarekin zerikusia duten talde desberdinenzako elkargune bihurtzea ere bilatuko da. Bertako eraikin eta zerbitzuez baliatuz, naturzaileen biltzarrek, ikastaro desberdinak, hitzaldiak, mintegiak, erakusketak e.a. egiteko aukera zabala egon litekeelarik.

2.5.3. INGURUKO EKIPAMENDUEKIN LOTURAK

Azterketa honek aurreikusiko lituzkeen zerbitzu eta ekipamenduak, inguruan jadanik existitzen direnekin edota aurreikusiak daudenekin osagarriak behar dute izan. Ez dira zerbitzuak errepikatu behar eta zerbitzu eta ekipamendu desberdinak koordinatuta egon beharko dute, EKPEko (Erabilera eta Kudeaketa Plan Eraantzalea, Eusko Jaurlaritza 2002) 9.7.1 ataleko 4. eta 5. eta 9.7.3.1.3 puntuatan jasotzen den modura:

9.7.1.4.-Ikastetxeei zuzendutako didaktika eta hezkuntza jardueren zerbitzu bat ezartzea, monitore-hezitzailleen eta jendearentzako argitalpen edo emanaldien bidez. Zerbitzu hori beste ekipamendu batzuetara ere zabal dai-teke, Artikutzako eta Ibarlako Natur Gelatara (azken hori proiektuan) eta meatzari, izokin atlantiarrari, etb. Izenburua eskainiz sortu daitezkeen gela didaktikoei eta Aritxulegiko den aterpearri.

9.7.1.5.- Inguru horretan dauden edo aurreikusten diren beste ekimen didaktiko-kulturalekin koordinatzeko mekanismoak ezartzea.

9.7.3.1.3.- Inguru horretan dauden edo aurreikusten diren beste ekimen didaktiko-kulturalen kudeatzailleen koordinatzeko mekanismoak sortzea, bereziki Artikutzako Natur Gelarekin, Belabaratzeko aterpetxearekin (Errenterian) eta Santiagomendiko Natur Gelarekin (Astigarragan).

Arrixulo Aritxulegiko aterpea, zentroaren oinarrizko azpiegitura osagarria izango da, zentroaren erabiltzaileei parketik irten gabe euren egonaldia luzatzeko aukera emango baitie, bere hostatu zerbitzuarekin. Horretarako zentroaren eta aterpearren arteko lotura nola gauzatu aztertuko da (oinezko ibilbidea, autoz-koa, eko-igogailua...).

Zentroak bultzatzen lagundi nahi duen jarrera aldaketan, bidegorriarekin uztarketa aukera interesgarri modura ikusten da. Zentrora hurbiltzeko modu eko- logikoak bideratzeko balioko du, topoa, autobus geltokiak edota hirigune hurbilenak (Oiartzun, Errenteria) eta Arditurriko zentroa lotuko dituelarik. Komunikabi-de hau bultzatzeko azterketa egin beharko litzateke (doako bizikleta alokai-ruak...).

Bestalde, zentroa, erabiltzaileen eskuragarri jartzeko helburuarekin autozko errepidea eta aparkalekuak nola antolatu aztertuko da, beti ere irizpide ekologi-koak errespetatuz.

3. INGURUMEN JARDUEREN BILDUMA

3.1. Sarrera

Jarraian aurkezten dugun bilduma Ingurumen Zentroaren Sorkuntza proiektuaren garapenean lehen urratsa da. Bilduma-lana izanik orain artean jasotako erreferentzi eta datuen bilketa da hemen aurkezten dena eta berau aurrera begira zuzenketa, erreferentzia berrien jasotzea eta bidean galduakoen berreskuratzleen bidez aberastuko da. Alde horretatik, bilketa honi aportazioren bat egin nahi dionak, egilearekin harremanetan jartzeko aukera du (lapi-tze28@euskalnet.net).

Bilduma 2001.eko urrian burutu zen eta oraingoz ez da eguneratu, beraz data hartatik aurrerako jarduerarik ez du biltzen.

3.2. Helburuak

Bilketa honen helburu nagusiak ondorengo hauek dira: Arditurriko Ingurumen Zentroa Sortzeko **proiekta abian jartzea** eta horretarako beharrezkoak diren **oinarrizko informazioak biltzea**.

Helburu zehatza, Arditurriin, Oiartzungo bailaran, Aiako Harriko Parke Naturalen, eta eskualde hauen inguruko eremutan gaurdaino egin diren, abian diren edota aurreikusiak dauden, eta **ingurumenarekin erlazionaturik dauden jardueren desberdinaren bilketa egitea** eta beraiekin **datu base bat osatzea** da. Aipatu nahi dugu azken helburu hau, Aiako Harriko Parke Naturaleko EKPERen Beharrezko Jarduketa batekin uztartzen dela (9.7.3.1. atala; 4. puntu. Eusko Jaurlaritza, 2002).

3.3. Material eta Metodoak


Bilduma egiterakoan bide desberdinak erabili ditugu.

- Ezagutza eta lan arlo desberdinetan adituak diren pertsonekin harremana. Carlos Aseginolaza (Oiartzungo Udala), Iñaki Aizpuru (Aiako Harriko Natur Parkeko zuzendaria), Josean Auzmendi (CEIDA), Ramon Gorrotxategi (Haurtzaro Ikastola), Enrike Lekuona (Oiartzungo Liburutegia) eta Mertxe Urteagak (Arkeolan) bilaketa bideratzen lagundu dute.
- Oiartzungo eta Koldo Mitxelena Biblioteketako, fondoak arakatu dira.
- Aldizkari espezializatu desberdinetan bilaketa sakonagoak egin dira, *Oiaritzun, Munibe, RIEV, Naturzale, Lurralde, Sustrai eta Arkeolan* izan dira azterturikoak.
- Bilaketa bide hauen osagarri, bibliografia, datu base eta internet bidezko bilaketa-lana ere egin da.

Bildutako erreferentzia guztiak, datu base batean jaso dira, datu basea sortzeko eta bertako erreferentziien azterketa egiteko Microsoft Acces 2000 eta Microsoft Excel 2000, programa informatikoak erabili dira.

Datu Base erabilgarria sortzeko helburuaz, bai bilaketa garaian eta baita datuak antolatzeko orduan ere, muga batzuk ezarri dira. Bilaketa gertuko gai eta eremu geografikotara mugatzea erabaki da. Honela kokapen aldetik lan honetan soilik proiektuaren eremutik (Arditurre, Aiako Harria Parke Naturala, Oiartzun) hurbil garaturiko jardueratara mugatu da. Erreferentziak Arditurriarekin duten hurbilotasun geografikoaren arabera lau talde desberdinan sailkatu dira (Ikus 3. irudia). Lehenengo taldean (datu basean A modura kodifikatua) zuzenki Arditurri garaturiko jarduerak jaso dira. Bigarrenean (B modura kodifikatua) Aiako Harriko Parke Naturalean eta Oiartzungo Udalerrrian garaturiko jarduerak kokatu dira. Hirugarren taldea (C) aurreko taldeekin mugan dauden eskualdeek osatzen dute (Errenteria, Irun, Hernani, Bortziriak, Goizueta, Artikutza). Azkenik D taldean gai-nontzeko eremu geografikoak sartu dira (Gipuzkoa, Euro Hiria, EAE, Nafarroa, Euskal Herria, e.a.). Sailkapen honi jarraituz, Datu Basean soilik lehen hiru taldeetan dauden erreferentziak hartu dira kontutan, D taldekoak (Gipuzkoa, Nafarroa, EAE, Euskal Herria...) oraingoz behintzat ez dira aintzakotzat hartu.

3. Irudia: A,B eta C eremu geografikoen eskema (Euskal Herria 1: 280.000, Sua Edizioak, Mapatik moldatua)



Datu Baseak jasotzen dituen erreferentziak mugatzeko bigarren araua jortaturiko gaiei ingurukoa izan da. Ingurumen proiektua izanik, bilaketa Ingurumen-Natur Zientzia alorrekin zerikusia duten gaietara mugatu da. Halere, eta Arditurriko eremurako (A) ez da gai aldetik mugarik jarri eta aurkituriko erreferentzia guztiak jaso dira Datu Basean.

Honela, sortu da Oinarrizko Datu Basea deiturikoa. Datu Base honetan, eta informazio nahikoa izan den kasuetan, erreferentzia bakoitzaren, *Izenburua, Egi-lea edo Arduraduna, Urtea, Jarduera Mota, Alorra, Kokapena, Argitalpena eta Hizkuntzaren* datuak jaso dira.

Datu Basetik abiatuta, eta erreferentziien azterketa sakonagoa egiteko, erreferentziak lau talde desberdinan banatu dira. Lau taldeak, proiektuak dituen asmoen arabera egin dira eta hurrenez hurren, *Ikerketa, Ingurumen Heziketa, Dibulgazioa eta Bestelakoak* dira. Honela lau taula sortu dira (Ikus ERANSKINA, 6. puntu).

Erreferentzia desberdinak talde desberdinan sartzerako orduan erabaki subjektibo batzuk hartu dira:

- *Ikerketaren* taldean sartzeko, irizpideak hauek izan dira: Tesiak izatea, aldizkari zientifikotan argitaraturiko erreferentziak izatea eta beste daturik izan ezean, izenburuak ikerketa dela erakustea.
- *Ingurumen Heziketa* taldean espresuki heziketa alorra lantzen duten erreferentziak bildu dira.
- *Dibulgazioa* taldean, publiko zabal bati zuzenduriko dibulgazio erreferentziak sartu dira, hala nola dibulgazio aldizkarietan argitaraturiko artikuluak, liburuak edota bestelako komunikabideetan plazaraturiko erreferentziak.
- *Bestelakoak* taldeak aurreko hiruretan tokirik ez duten erreferentziak sartu dira.

Tauletan erreferentziak izenburuen ordena-alfabetikoaren arabera eta argitalpen-urtearen arabera antolatu dira.

3.4. Emaitzak eta Eztabaida

Orotara, aipaturiko lau taldean banaturik 192 erreferentzia bildu dira, Datu Basea lau talde nagusitan banatuta txosten honen 6. puntu (Eranskina) bildu da.

Alde batetik eztabaidagarriak izan daitezke, erreferentziak sailkatzeko erabili diren irizpideak. Lau talde desberdin sortzeak, erreferentziak talde hauetan kokatzea eskatzen du. Prozesu horretan, zenbaitetan, erreferentziei buruz jasotako informazio eskasaren ondorioz arazoak sortu dira eta azkenean, ziurtasun osorik izan gabe talderen batean kokatu dira. Halere, kontutan izan behar da, oinarrizko datu basea bere horretan mantendu dela, eta bertan erreferentzia guztiak batera bildurik mantendu direla. Honela jarraian aurkezten ditugun emaitza eta emaitzen interpretazioak ez dira behin-betikotzat hartu behar. Datu Basearen

zuzenketa eta osaketa prozesua jarraia izatea espero da eta prozesu horrek emaitza hauek aldatzea suposatuko du.

Oinarrizko lau jarduera moten araberako erreferentziaren banapena nahikoa desberdina da. Gehienak (100, %52.1) dibulgazio taldekoak dira. Ikerketa alorekoak 65 (%33.9) dira, Ingurumen Heziketakoak 14 (%7.3) eta azkenik Bestelakoak taldeko erreferentziak 13 (%6.8) dira. Erreferentzia talde desberdinen emaitzak aztertzerakoan, dibulgazioaren nagusitasuna ez da ulertzeko zaila, bertan sartzen diren erreferentziak gehienetan, aldizkaritan agerturiko lerro gutxitako aipamenak baitira. Agian banapen honetan deigarriena Ingurumen Heziketaren inguruaren lortu den kopuru eskasa. Hau bi arrazoiren ondorio izan daiteke, batetik bilaketan egindako akatsak eta bestetik, ingurumen heziketan egiten diren jarduerak, idatziz jasotzeko eta argitaratzeko ohitura falta.

Erreferentziak kokatzen diren eremuaren arabera (A, B edo C), honela banaturik geratzen dira: Gehienak (117, %60.9) B kokapena dute (Oiartzun-Aiako Harria), Arditurriko eremukoak (A) 33 dira (%17.2), eta azkenik mugetako eremutakoak (C) erreferentzia dira 42 (%21.9).

Erreferentziak gai desberdin ugari jorratzen dituzte, maizten landutako gai nagusiak hauek dira: Geologia (32 erreferentzia), Nekazaritza (26 erreferentzia), Meatzaritza (25), Babesguneak (13), Flora (11), Ekologia (9), Fauna (9), Herri-medikuntza (9). Gehien jorraturiko alorrek, azterturiko tokiak dituen balioen erakusle dira, Ez da harritzeko Geologia, nekazaritza eta meatzaritza izatea alorrik jorratuenak, Aiako Harriak formazio geologiko parerik gabea da Euskal Herrian, Arditurri, Euskal Meatzaritzaren gune historikoa, eta nekazaritza bestalde, azterturiko eremuan eragiten duen sektore nagusietakoa. Babesguneak, Flora, Fauna eta Ekologiaren erreferentziaren ugaritasuna ere bide berezik azaldu daiteke.

Erreferentzietan erabilitako hizkuntza desberdinak honela bana daitezke: Gaztelera 99 erreferentzia (%51.6), Euskara 58 (%30.2), Elebidunak 22 (%11.5), Frantsesez 5 (%2.6) eta alemanera erreferentzia bat (%0.5).

Talde desberdinak emaitzak azalduko ditugu jarraian:

3.4.1. IKERKETA

Jasotako erreferentzietatik gehienak, artikuluak dira, 39 hain zuzen. Lurraldearen kudeaketan eragiteko proiekturen baten inguruaren egindako ikerketak 20 dira eta oinarrizko ikerketak 13, horietatik 7 tesia direlarik. Egiten diren ikerketa gehienak aplikazio zuzena dutenak dira, hau da, behar zehatz bati erantzuteko garatu direnak (Parkearen Sorrera, Kutsadura kimikoaren arazoa, nekazal lurren antolaketa beharra e.a.). Bildu ditugun Ikerketek jorratzen dituzten alorretan Geologia alorra da nagusi, Flora, Ekologia eta meatzaritzaren ondotik, (Ikusi 1. taula).

1. Taula: Ikerketa mailan bildutako erreferentziak jorratzen dituzten alor nagusiak

ALORRA	Ikerketa Kopurua
Antropologia	3
Arkeologia	5
Botanika/Landaretza	8
Edafologia	2
Ekologia/Ibaietako ekosistemak	7
Geologia/Geomorfología	18
Ingurune Fisikoa	5
Uren Kutsadura/Kalitatea	5
Hondakin hiritarrak	1
Meatzaritza	7
Nekazaritza	4
Denetara	64

Erreferentzia desberdinen artean aipagarriak dira, dokumentu historikotzat hartu ditzakegung ikerketak zaharrenak 1804 eta 1908 urteetan datatuak baitaude.

Jarraian adibide modura zenbait erreferentzia interesgarri:

- *Noticias y descripción de las grandes explotaciones de unas antiguas minas situadas al pie de los pirineos y en la provincia de Guipúzcoa*
J.C. Thalacker. 1804.
- *Evaluación de la Emisión de Metales Asociada a las Explotaciones Mineras de Arditurri.*
Lab. de Quim. de la Cont.; Dep. de Quim. Aplic. UPV. 1992
- *Geobotánica de las cuencas Bidasoa-Urumea (NO de Navarra-NE de Guipúzcoa). Estudio ecológico de los suelos y de la vegetación de la cuenca de Artikutza (Navarra)*
M.P. Catalán. 1988. Doktoretza Tesia
- *Proyecto de Restauración Hidrológico-Forestal de la cuenca del río Oyarzun*
TRAGSA. 1989
- *Aiako Harriko Lau Landare Espezie Mehatxaturen Kartografía.*
E. Arbelaitz. 2001.

3.4.2. INGURUMEN HEZIKETA

Erreferentzia-kopuru totala 14koa da, hauetatik 6 ingurumen heziketara bideratiko ekipamenduak dira, 3 ingurumen heziketa ekintzak, 3 natur ibilbideak, eta 2 unitate didaktiko. Aipagarria da azterturiko eremuaren jadanik existitzen

diren ekipamendu multzoa, datu hau oso kontutan izan beharko da aurrera begira egin beharreko Ingurumen heziketa ekimenetan.

Adibide modura:

- *Gipuzkoa Ezagutzeko Ibilbideak/Recorridos Medioambientales para cono-
cer Gipuzkoa: 5. ibilbidea: Bidasoa-Peñas de Aia.*
Gipuzkoako Foru Aldundia.1998.
- *Gure Mendi Basoa.*
EGUZKI-Oiartzungo Udala-Hautzaro Ikastola. 1996.

3.4.3. DIBULGAZIOA

Erreferentzia kopuru altua da talde honetan (101), gehienak artikuluak dira, 85. Artikuluez gain, 8 liburu, 4 bideo, 3 erakusketa/museo, eta Webgune batek osatzen dute talde hau. Aipamen berezia behar dute, talde honetan sailkatu ditugun liburu monografikoak, zeintzuek Oiartzungo Historia, Geología, Natura eta Herrimedikuntzari buruz lan mardul eta interesgarriak argitaratu dituzten.

Dibulgaziozko erregistroen adibide modura, dibulgazio ataleko zenbait erreferentzia:

Del Oyarzun Antiguo
M. de Lekuona. 1956. liburua

El “Billigarro” en Oyarzun
M. Irigoyen. 1976. artikulua

Oiartzun Harriz harri
